

TECNALIAk Konbus+ *startup*a sortu du, osagaiak fabrikatzeko abiadura handiko proiektzio termikoko teknologia aurreratuetan espezializatua

Donostia, 2026ko apirilaren 27a TECNALIA ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentroak Konbus+ *deeptech startup*a sortu du, abiadura handiko proiektzio termikoko teknologia aurreratuak merkaturatzeko, zeinak errekuntza jarraituko eta pulsatuko prozesuetan oinarrituta baitaude. Teknologia horiekin, osagaien iraunkortasuna eta higadura hobetzen duten estaldurak sor daitezke. Hala, ekoizpen-kostuak murrizten dira: gas gutxiago kontsumitzen da, prozesuak denbora gutxiago behar du eta eraginkortasuna eta produktibitatea hobetzen dira.

Zehazki, TECNALIA duela 25 urtetik garatzen ari den teknologiaren transferentzia jaso du Konbus+-ek, eta proiektzio termiko aurreratuko bi teknologia propio eramango ditu industria-sarera, abiadura handiko detonazioan eta errekuntzan oinarritutako prozesu tradizionalen alternatiba izango direnak.

Lehen aplikazio industrialak

Konbus+-ek Euskadiko Parke Teknologikoren Donostiako Campusean du egoitza, eta, handik, garapen industrialeko eta balio erantsi handiko merkatu estrategikoetan kokatzeko faseari ekingo dio, hala nola alanbreen trefilaketa, papera eta automobilgintza industriarako makinak eta erremintak, nazioartera iristeko asmoz. Plan estrategikoak aurreikusten du, batetik, epe ertainera sektore aeronautikora hedatzea, proiektzio termikoko teknologien munduko merkaturik handiena baita, eta, bestetik, aukera berriak aztertzea, besteak beste, ibilgailu elektrikoaren baterietarako elektrodoen fabrikazioa.

Konbus+-en soluzio teknologikoen heldutasun teknologikoa handia dute, eta TECNALIAk aldeztu aurretik baliozkotu ditu ITER nazioarteko proiektuan aplikatzeko, zeina fusio-energiaren alorreko ekimen zientifiko global handienetako bat baita. Bultzada horrekin, *startup*a Europako eragile berrietako bat izango da gainazalen teknologia aurreratuetan eta fabrikazio aurreratuan, eta gai izango da inpaktu handiko ezagutza zientifikoa benetako aplikazio industrialetara eramateko.

Deeptech ekosistema bultzatzea

Konbus+ sortzeak indartu egiten du TECNALIAk sustatzen duen teknologia-transferentziarako estrategia, zeinaren helburua baita ikerketa-emaitzak *deeptech* enpresa berri bihurtzea, inpaktu industriala, enpresa-lehiakortasuna eta hazkunde ekonomikoa eragiteko. Arrakasta-kasu berri bat da TECNALIArentzat. Hain zuzen ere, partaidetzapeko 21 bat enpresa ditu jada, *deeptech startup*ak den-denak. Guztira 149 enplegu sortu dituzte, eta 8,75 milioi euroko fakturazioa izan dute.

TECNALIAri buruz

TECNALIA Espainiako ikerketa aplikatuko eta garapen teknologikoko zentro handiena da, Europako erreferentzia eta Basque Research and Technology Alliance-ko kide. Enpresa eta erakundeekin elkarlanean aritzen da, lehiakortasuna eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko eta hazkunde jasangarria lortzeko. Horretarako, 1.500 lagunetik gorako lantalde bat dauka, ikerketa teknologikoen eta berrikuntzaren bidez mundu hobe eraikitze konpromisoa hartu duena. Hauek ditu jardueraren nagusiak: fabrikazio adimenduna, eraldaketa digitala, trantsizio energetikoa, mugikortasun jasangarria, osasuna eta elikadura, hiri-ekosistema eta ekonomia zirkularra.

TECNALIAren misioa da ikerketa teknologikoa oparotasun bihurtzea, eta ikuspegia, berriz, enpresen eta gizartearen eraldaketaren eragile lider gisa etorkizunari aurrea hartzea, gero eta azkarrago eboluzionatzen ari den munduaren erronketara egokitu daitezen. Horregatik, TECNALIAren ikerketak benetako eragina du gizartean, eta onurak sortzen ditu bizi-kalitatean eta aurrerabidean. European Research Survey ERSk ospeari eta posizionamenduari buruz egindako azken azterketan (2025ean egingo da), TECNALIA lehen postuan ageri da I+G+Ban markak duen ospeari dagokionez.

www.tecnalia.com

Informazio gehiago:

Maite Gutiérrez: 639 197 133